

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Baliabideak ezinbestekoak dira enpresa aurrera eramateko, gure kasuan giza baliabide aktibo nagusienak zuzendaritza (langileen betebeharrak bideratzeko), sormena (diseinuen ideiak emateko) eta merkataritzarako trebezia (besteei gure proiektuaren berri emateko) izango dira.

Lehenik eta behin, baliabide fisikoak kontuan hartuz, gure produktua fabrikatzeko erabiltzen ditugun instalazioak izango dira. Lan egiteko erabiliko duguna, edifizio batean, solairu oso bateko ofizina bat izango da (alkilatuta). Horrez gain, produktu pertsonalizatuak sortzeko erabiliko ditugun materialak eta gure proiektuaren berri emateko erabiliko ditugun ordenagailuak baita ere sartuko dira baliabide fisikotan. Esan bezala, hau dena bertan egongo da, horrela produktuak ez dira atzerrik etorriko eta diseinuak momentuan azalduko dira.

Bestalde, finantza baliabideak gure aurrezkiak izango dira. Hasieratik asiko garenez gure enpresarekin, ez ditugu etekinak edukiko eta beraz, dena ondo ateratzen bada gure negozioa zabaltzeko aukera edukiko dugu eta aprobetxatzeko eskudiru adina lortuko dugu. Kapital txikiarekin hasio garenenez, ingurukoen (familia, lagunak...) laguntzaz ere baliatuko gara eta mailegu bat eskatuko dugu hasiera batean, gure enpresa aurrera eraman ahal izateko. Dirua galduko dugun arren, geroago dirua irabazten hasiko garenez, konpentsatuta ikusiko gara behin dena ondo antolatuta dugula.

Baliabide intelektualak beatzen baditugu, denboraren poderioz sortzen eta garatzen joango dira. Gure produktuak patenteak eta egile-eskubideak edukiko ditu hasiera batetik, inork gure ideia kopia ez dezan. Gure produktuaren markaren izena ETXEBE-FLOW izango da.